



"Eskola ekintzailea", "Gipuzkoan Ekin Ekinari" gidaren hirugarren zenbakia. [html pdf ppt](#)

Sortako hirugarren zenbaki horrekin, Gipuzkoako Foru Aldundiak ikaskuntzarekin erlacionatutako gizarte?gaitasunak sustatzeko erakutsi duen interesari erantzun nahi zaio. Joaquín Villa Berrikuntzarako eta Jakintzaren Gizarterako diputatuaren hitzetan, "sormena, esfortzua, arriskua eta elkartasuna dira gure gizartean nahitaez indartu behar ditugun zenbait balio, baldin eta etorkizuneko erronkei erantzun nahi badiegu eta, ondorioz, Gipuzkoa benetako berrikuntzaren lurralde izatea lortu nahi badugu. Eta hori guztia lortzeko eskolatik bertatik hasi behar dugu lanean; izan ere, eskolan gaitzen eta trebatzen dira etorkizuneko gizartea gidatuko duten pertsonak. Zalantzarik gabe, hezkuntza?sisteman esku hartu behar da, iraganetik datozen inertiak alde batera uzten dituen prozesu neketsu eta konplexu horrek arrakasta lor dezan".

Zentzu horretan, "Eskola ekintzailea" izeneko gidan azken urteetan egindako lanaren eta ahaleginaren (prestakuntza, dokumentazioa, hedapena, parte?hartzea, eta abarren) azterketa egin du profesional?talde batek. Horrela, talde horrek egindako gogoetak eta ekarpenak barne hartu dira liburuan.

Beste argitalpenekin egin den moduan, hiru formatu desberdinetan ("html", "ppt" edo "pdf") eskura dai-teke argitalpena ondorengo orrian.

2006ko azken GEM (Global Entrepreneurship Monitor) txostena.

Munduko ikaskuntzari buruzko informazio osatu eta zehatzena. GEM (Global Entrepreneurship Monitor) txostenak 2006ko edizioa aurkeztu du. Mundu osoan enpresak sortzearen inguruan dagoen ikerketa nagusizat finkatu da. GEM 2006 txostenak aditzera ematen duenez, urteko serie historiko bat izatea ahalbidetzen duen ikuspegiarekin jadanik, gizarteak oso bilakaera ona izan du ekimenaren fenomenoaren balorazioan. Txosten horretan jadanik 50 herrialdek parte hartzen dute urtero edo bi urtean behin. Munduko BPGd-aren % 90etik gora ordezkutzen dute. Gainera, aipagarria da eskualdeko proiektuak garatu izana (REM edo Regional Entrepreneurship Monitor). Proiektu horiek, urte honetan zehar, mapa ekonomikoa osatuko dute.

[+] [GEM 2006 txostena eskuratu](#)

Etengabeko ikaskuntzarako funtsezko gaitasunak.

Globalizazioak Europar Batasunean oraindik dakartzan aupadak kontuan izanda, herritar bakoitzak gaitasun-sorta zabala izan beharko du azkar aldatzen ari den eta elkarlotura ugari dituen mundu honetan malgutasunez moldatu ahal izateko. Europako Parlamentuak eta Kontseiluak gomendio bat eman dute, 2006ko abenduaren 18an, etengabeko ikaskuntzarako funtsezko gaitasunen inguruan. Dokumentu horretan, egoerara egokitutako ezagutzen, ahalmenen eta jarrerren konbinaziotzat hartzen dira gaitasunak. Funtsezko gaitasunak herritar guztiek garapen pertsonalerako, herritartasun aktiborako, gizarteratzeko eta lana lortzeko beharrezkoak dituztenak dira. Erreferentziazko esparruan, funtsezko zortzi gaitasun hauek ezartzen ditu: komunikazioa ama-hizkuntzan; komunikazioa atzerriko hizkuntzetan; gaitasuna matematikan eta oinarrizko gaitasunak zientzian eta teknologian; gaitasun digitala; ikasten ikastea; gizarte- eta gizabide-gaitasunak; ekimen-zentzua eta enpresa-espirtua; eta kontzientzia eta adierazpide kulturalak.

[+] ["Etengabeko ikaskuntzarako funtsezko gaitasunak" dokumentua eskuratu](#)

**Begoña Zunzunegui, Becara-ko lehendakaria, profil biografiko eta profesional berria
"Ekintzaileen eredu unibertsalak" atalean.**



"Ekintzaileen eredu unibertsalak" atalean enpresari berri baten profil biografikoa barne hartu da. Azpimarratzekoak dira enpresari horrek berritzeko duen gaitasun handia, ekintzailetza nekaezina eta benetako emakume aitzindari gisa erakutsitako ahalmen izugarria. Begoña Zunzunegui andreaz ari gara hitz egiten. Bera dugu Becara enpresaren lehendakaria: altzarien diseinu, fabrikazio eta banaketan eta dekorazio eta opari artikuluen produkzioan jarduten duen lehen enpresa europarretako bat.

[+] informazio gehiago